

EK-ko ministroak Bosniako egoera aztertzeke bilduta daude Parisen


Bake akordioek huts eginez gero Europaren eskuhartzea eztabaidatzen dihardute

Bosnia-Herzegovinako bake planak —herenegun Geneban hiru aldeek onartuak— huts egingo balu Europaren jarrera zein izango den aztertzeke ezohizko bilera egin zuten atzo Parisen Europako Komunitateko Atzerri ministroek. Eskuhartze militarretik hasi eta Serbiari erabateko enbargoa ezarri arteko aukera guztiak izan zituzten aztergai.

PARISE

Uffe Ellemann Jensen Danimarkako Atzerri ministro eta EK-ko Ministroen Kontseiluko lehendakariak Serbiari enbargo osoa egiteko proposamena eraman zuen Parisera. Bere ustez, eskuhartze militarra ezin liteke egin, serbiarrak ez liratekeelako horrekin beldurtuko, oraingo mehatxuak ere «txantxetan» hartzen dituztelako. Aitzitik, Serbiari «horniketa moeta guztiak, barne egiturak, telefonoa eta komunikabideak eten eta harreman diplomatiko guztiak hautsiz», errepublika honen isolamendu politiko, ekonomiko eta diplomatikoa lortuko litzatekeela. «Horri diote beldurra serbiarrek» adierazi zuen, EK-ko kide batzuek erakundeak hartutako neurriekin «jator» ez dutela jokatu nabarmentzen zuen bitartean. Izenik aipatu ez bazuen ere Greziaz ari zen, Serbiaren betidaniko «aliatuaz», baina Mazedoniaren errekonozimenduan Greziak jarritako betoa izen eta guzti gaitzetsi zuen.

PARISE Guztiz
ESKUHARTZEAREN kontrako
ALDE jarrera Ro-
land Dumas Frantziako Atzerri



Kasko urdinen kontrako jarrera handia da Sarajevon lehen ministrordearen hilketa geroztik.

Kosovo garbitzeko prest

PRISTINA

■ Geneban hitzartutakoak beteko diren ikusteke dagoen honetan, Serbiako Armadak, gerra Bosnian mugatzeko asmorik ez duela erakusten duten berriak zabaldu dira Kosovon. Pristinaren argitaratzen den «Zëri» egunkariak, Jugoslaviako Indar Armatek eta Slobodan Milosevic lehendakari serbiarrak Kosovorako prestatu duten «gerra plan-gintza» argitaratu zuen, armada federaleko «goi iturri fidaga-

rrietan» oinarrituta. Beronen helburua, Kosovon bizi diren albaniarren (herritarren % 90) aurkako «garbiketa etnikoa» burutzea izango litzateke.

Plan honen arabera, Kosovo eraso serbiar baten eszenatoki izango da luze gabe. Helburu hau finkatuta, indar armatu serbiarrek dagoeneko prest dituzten hiru unitate militar hasiko lirateke erasoan. Kosovoko iparraldetik bi taldek eta Montenegrotik (mendebaldetik) beste batek, jarriko lukete abian plan militarra.

ministroak eraman zuen. Honek alde aurretik ere aipatu izan du Bosniako aire eremua hegazkin serbiarretatik «askatu» beharra

dagoela, eta Parise eskuhartze militarren alde legokeela kontzentrazio eremu serbiarretako presoak askatzeko.

Eskuhartzeaz jarrera desberdinak badaude ere, EK-ko ministroak bat etorri ziren Radovan Karadzic serbiarren buruzagiak bake planari emandako baietak «esperantzak pizten baditu ere, duda asko daudela komunitate serbiarrak hori onartuko duen».

SOLDADU Parisen bildutako
BRITAINIAR EK-ko Atzerri
BAT HILIK ministroek Bos-

niako egoera eztabaidatzen ari baziren, errepublika horretan, Nazio Batuetako kasko urdinak musulman eta kroaziarren arteko su etena ari ziren negoziatzen bi aldeekin. Gornji Vakuf hirian, serbiarren kontra aliatuak diren aldeak elkarren kontra borrokan hasi ziren herenegun, eta atzo borroka etetea lortu zuten. Kasko urdinen tropak hiriansartu ziren borroka eragozteko, eta bi suren artean jarri ziren. Tiroketaren erdian soldadu britainiar bat hil zen atzo Londresek azaldu zuenez.

Honekcer askatu dute eta Txilera joango da

BERLIN

Berlineko Auzitegiko hamaugarren Ganbarak altxatu egin zuen atzo, Erich Honecker Alemaniako Demokratikoa zeneko lehendakari ohiaren gain zegoen bigarren atxiloketa agindua, eta aske utzi zuen. Ordu t'erdiko bileraren ostean, Berlingo Auzitegi erregionalak hartu zuen erabaki hau, egun bat lehenago Auzitegi Konstituzionalak Honeckerren osasun egoera kontuan hartuta ez zela zilegi lehendakari ohi kartzelan edukitzea erabaki ostean. Aske geratu ondoren, Txilera joango da Alemaniako Demokrati-

koa zeneko buruzagi ohi, bertan baitauzka emaztea, alaba eta ilobak.

Honeckerri Berlineko harresia iragaten saiatu ziren iheslari ekialemaniarren hilketa leporatu zizkieten, eta iragan abenduaren 6an hasi zen, Nurenberg prozesuaren ostetik Alemaniaren egin den epaiketak istilutsuena. Honeckerren abokatu defenditzaileek, ordea, alemaniar agintari ohiaren osasun egoera txarra argudiatu zuten epaiketa gerrarazteko, berau amaitu aurretik hil baitzitekeen. Berlineko Auzitegi Konstituzionalak defentsaren argudioak ontzat eman zituen, eta

giza eskubideen kontra zihoala erabaki zuen Honecker espetxean edukitzea.

MOSKUN Erich Honec-
GORBATXOVEN ker Moskun
BABESEAN babestu zen

Berlineko harresia erori eta gero, han Mikhail Gorbaxov Sobiet Batasuneko lehendakaria zenak eman baitzion errefuxiatu estatutusa. Baina 1991ko abuztuaren SESBen estatu kolpe saialdia izan eta lau hilabete beranduago Gorbaxovek dimititu ondoren, Honeckerren estradizioa eskatu zuen Bonnek. 1992an estradizio eskaerak indartu egin ziren. Aldi

berean, Txilen, babesa emateko aukerak eztabaidatzen ari ziren Legebiltzarrean. Azkenean, Alemaniako Txilaren arteko konponketa eman zen eta Moskun estradizio eskaera onartu zuen iragan udan.

Orain, Txilera bidea hartuko du Honeckerrek, bere gibelako minbiziak uzten dion arte azken egunak iragatera, bertan duen familiaren ondoan. 1945ean II. Mundu Gerra amaitu ondoren Alemaniako agintari askok ihes egin zuten lekua izango da Alemaniako Demokratikoa zeneko azken lehendakariaren egoitza berria.

LABURREAN

LEHEN marine-a hil da Somalian

Somalian dauden Estatu Batuetako 20.000 marine-etatik lehena hil zen herenegun, Penatagonoko iturriek adierazi zutenez. Washingtonek heriotza honen berri eman zuen bitartean, Kongresuko talde batek NBE Somalian izaten ari den jarrera kritikatu zuten gogor, Nazio Batuek tropa estatubatuarrek ordezkatzeko gai ez direla arrazoituta ●

SOLDADUTZA desagertu egingo da Holandan

Datozen bost urteetan Holandako indar armatuak nabarmen murriztuko dira eta desagertu egingo da derrigorrezko zerbitzu militarra. Holandako Parlamentuak onartu egin zuen herenegun Armadaren erreforma legea. Honen arabera, epeka-epeka desagertaraziko da soldadutza 1998 urtea artean, eta Armadaren indarren % 44 geratuko da bertan behera ●

APIRILAREN 27an egin liteke erreferenduma Danimarkan

Maastrichteko ituna berresteko bigarren erreferenduma apirilaren 27an egin liteke Danimarkan. Poul Schluter, bertako lehen ministro kontserbadoreak iragarri berri duenez, urtarrilaren amaiera aldera aurkeztuko dizkio Parlamentuari Edinburgheko gailurreko konklusioak. Ondoren hiru aste iraun lezaketen eztabaidak iritsiko dira, eta alderdien arteko kontsultetan sartu beharko dute azkenik buru-belarri ●

HILDAKOAK 500 izan dira Bombayn

Hinduen eta musulmanen arteko liskarrek 500 hildako eragin zituzten pasa den astean Bombayn, 'The Times of India' egunkariak kaleratu duenez. Gertakari hauen ostean manifestazioak izan dira hirian. Atzo, 'Bakearen Aldeko Komiteko Herritarak' erakundea irten zen kalera, agintariak lege martziala agindu dezaten exigitzeko ●